

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumuma – HABE, 2015-2018

- 340-HEOCaren gidalerro nagusiak: A1**
- 341-HEOCaren gidalerro nagusiak: A2**
- 342-HEOCaren gidalerro nagusiak: B1**
- 343-HEOCaren gidalerro nagusiak: B2**
- 344-HEOCaren gidalerro nagusiak: C1**

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumuma (HEOC) ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Agindua uztailaren 31n argitaratu zen EHAA-n (<http://www.habe.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/07/1503391e.pdf>). Eta 2015eko urriaren 1etik aurrera jarriko da indarrean ondorio guztietarako.

Horrela, bada, helduen euskalduntzearen araubide akademikoaren baitan, euskalduntzegintzan dihardugun guztiok erreferentziazko oinarrizko curriculumaren eskakizun eta zehaztapenetara egokitu behar dugu Euskaltegiaren Curriculum Proiektua, ikasprozesuaren programazioa, langaien eta ikastunitateen diseinua, ikastereduak —aurrez aurrekoa, jardun bikoia, autoikaskuntza—, ebaluazioa eta euskara-mailen egiaztatzegegintza.

Erronka handia da aurrean duguna, baina etenik gabeko hobekuntzaren bidetik eta profesional guztion orain arteko eskarmentua baliatuz gaindituko dugu.

Horregatik eta horretarako, Curriculumuma ezagutarazteko, hain zuzen ere, berariazko prestakuntzaegitasmoa taxutu zuen HABEk 2015-2018 ikasturteetarako. Ikasturtero bost ikastaro eskainiko ditu, dohainik eskaini ere: hiru, urritik urtarrilera (A1, B1, C1); eta beste bi, otsailetik maiatzera (A2, B2).

Ikastaro bakarra egiteko egokiera izango dute euskaltegietako irakasleek egitasmoak dirauen bitartean; hain zuzen ere, maila bateko ikastaroari etekina ateraz gero, gai izango baitira curriculumaren gidalerro nagusiak beste mailatara egokitzeke.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburua

Ikastaro honen helburua da HEOCaren gidalerro nagusiak ezagutaraztea, eta euskara-irakasleek, horien arabera, Euskaltegiaren Curriculum Proiektua, ikasprozesuaren programazioa, langaien eta ikastunitateen diseinua, ikastereduak eta baita ebaluazio-jarduerak ere moldatzea eta egokitzea.

Helburu zehatzak

- 1 HEOC dokumentuaren berri ematea, bertako gidalerro nagusiak azalduz.
- 2 Ekintza komunikatiboren ikuspegitik, mailaz mailako gaitasun komunikatiboaz jabetzea.

Edukiak

1 Curriculumaren ikuspegi orokorra

- Curriculumaren kontzeptu nagusiak
- Ekintza komunikatiboaren izaera eta osagaiak

2 Helburu orokorrak

- Mailaren gaitasun komunikatiboaz jabetzea
- Ekintza komunikatiboa helburua dela ikustaraztea

3 Helburuei begirako edukiak

- Mailako ekintza komunikatiboak gauzatzeko eduki esanguratsuenak

4 Ebaluazioa

- Ebaluazioa eguneroko jardueran
 - Ebaluazio-motak
 - Mailaren ebaluazioa
 - Ebaluazio-irizpideak
 - Ekintza komunikatiboaren ebaluazio-proba

5 Lanketa didaktikoa

- Ekintza ikuspegiari oinarriturik, ikasgelarako planteamendu didaktikoa

Metodologia

- Hausnarketa, elkarreragina eta parte-hartzea bultzatuko da.
- Jarduerak on-line burutuko dira: bakarka eta taldeka.
- Taldeek foroa izango dute: batetik, lana aurkeztu eta elkarren arteko balorazioak egiteko; bestetik, tutoreak horien gaineko feedbacka emateko.

Ikastaroaren ebaluazioa

- Proposatzen diren jardueretako %85a egitea eta bakoitzean gutxienezkoa lortzea.
- Taldeko eztabaidetan parte hartzea.
- Egitekoak epe barruan burutzea eta gutxienezkoa lortzea.